


BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ.
61n. ZENBAKIA
URTEERRILLA
— 1983 —



Amor Lasa



BUTROI'KO GAZTELUA

JAUNTXUEN ALDIA

GOGORATZEN

EUSKERAZALEAK

ZAR

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia

50 PEZETA

URTE BARRIA (1983)

Urte barria beti da bizitza barria eta ezaugarri barriak ikusten doguz, urte zarrak itzita, barriaren asieran.

Zer diñosku urte zarrak? Zentzuk dira itzi dauskuzan ezaugarriak? Ba-dago itxaropenik edo pozbiderik?

Urte zarrak España'n agintari barriak ipiñi dauskuz, Gizarte-zaleak, eta ori España'tarrentzat aldakuntza aundi ta arriskugarri bat da, zalantza barik.

Eta gutzat? Aldakuntza bai, baiña ez ain aundia, azkenean be beti dira España'tarrak eta guk ondo dakigu norantza tiratzen daben eta zer nai daben. Gutzat ez da aldakuntza aundirik ezkerrean naiz eskoia izan. Gaiñera gizarte-zale orreik sarritan eta ondo agertu dabe euren jokabidea.

Alde orretatik ba, laiñotsu datorku urte barria.

Ekiñaldi barri au asi eta laster beste jazokizun bat izango dogu, udabarrian, ~~Udal-Batzetarako Auteskundera.~~

Eta au bai, au geure geurea dan arazoa dogu. Gure arazoak Gasteiz'tik sendietara bitartean dagoz geien, ortik gorakoak, edo ez dira gureak edo mingarriak izango dira geurea dana be ukatu egiten dauskuela-ko.

Udal-Batzai buruz zer? Euskalerrria itxaropentsu dago. Azkenenکو urte oneitan izan doguzan Udal-Batzak egin dabe zerbait, egiten diardue, nai'ta lan orren oarmenik, esperientziarik, ez izateak asko atzeratu gauzak.

Baiña urrengoentzat ba-dago oarmen pizka bat eta oraindiño be obeto jokatuکو dabela uste dogu. Alderdien alkar ulertu eziña dagoala? Eta noiz ez dogu izan ba euskaldunok eztabaida orreitarako gogoa. Baiña beti egin dogu aurrera eta egingo be bai.

Udal-Batz egokiak sortuکو dirala itxaron geinke, erakundé oneik erriagandik ur bizi diralako eta gure erriak bere zentzuna ez daualako galdu.

* * *

Ezaugarrien artean ba-dago beste bat, ain egokia ez jakuna: Bildurkeriaren arantzea: Antza dagoanez ilketak, baitzeak, iraultza-zergea batzeak eta olakoak ez dira amaituکو eta ugarituten ez ba'dira ez da gitxi.

Ez jako arantza oneri urtenbide egokirik ikusten.

Egia da, beste laterri batzutan be ba-dagoala, baiña alde batetik ez dauka emengoaren beste bizitasun, eta beste alde batetik askoren gatxa ez da pozerako bide.

Zergaitik ez ete dau ETA'k oinkada bat emongo gure erria baketzeko?

* * *

Urte barrirako euskerearen giroa zelakoa dan? Ba-dira itxaropenezko ezaugarri batzuk: Jaurlaritzaren ardura artzea, ikastola ta eskoletako lana eta olakoak, baiña ezaugarri txar batzuk be bai: Gure bizkaie-rearen egoera larria, Eusko Jaurlaritzak idazkera baragarriari emon gura dautson indarra, euskaldun askoren arteko nora-eza...

Baiña guk ba-dakigu geure bidea zein dan eta ortik jarraituکو dogu. Joan dan urtean langille gartsu bi geratu jakuz bidean, Estomba ta Landajueta, baiña idazle barriak eta laguntzaille barriak be etorriکو dira gure ZER'ek urte askotan bizirik iraun dagian.

Urte barri zoriontsua izan dagigula Euzkadi guztian.

Qumran'go esku-idazkiak

V GORAPEN-ABESTIA

III sorta

³Eskerrak emoten dautsudaz,
Jauna,
nigan zeure aurpegia ditzirazo
dozulako.

⁴[...] Zeuri aintza betikoan
guztiakaz[...].

⁵[...] zure agoa [...] eta Zuk atara egin nenduzun [illobitik].

⁶Onik atara dozu nire arimean.
Areik gorroto eusten eta itsas-sakonean datzan itsasontzia lez egin eben nire biziaz;

⁷arresidun uria lez bere are-rioen aurrean.

Larritasunak artuta nengoan, seiña leenengoz ekarri bear dauan emakumea lez, bat-batean sein-miñak eltzen yakozanean,

⁸eta aregan oiñaze gorriak somatzen diranean, laban zartaka dagoan zerbaiten antzera seingintzan diarduan emakumea biurketak egitera bearturik.

Semeak eriotz-gogo bizira el-tzen dira.

⁹Gizon baten seindun egoana, oiñazeak artuta egoan bere min biziakaitik;

izan be, bere larritasunen erdian gizonezko bat ekarren, eta Sheol'eko (Lezako) miñetatik,

¹⁰seindun egoanaren labatik, bere aal-izateagaitik onulari miragarri zan bat etorren argitara, eta gizonezko bat urteten zan larritasunetatik onik.

¹¹Seindunaren gaiñera bultza-kada ta oiñaze bizi guztiak amiltzen dira orduan.

Semeak jaioten ziran unean, ikara-larriak beteten ebezan seindun egozanak.

Seiña ekarren unean, samintasan guztiak batera eltzen ziran

¹²seindun egoanaren sabelera. Eta suge bat itxaroten ebana, min gogorretan sartuta egoan, eta lezako erasoak zemai ikaragarriz lertzen ziran.

¹³Arresiaren ondopeak koloka egozan, itsas-gaiñean itsasontzia lez;

odeiak, zaratots ikaragarriz, josten ziarduen,

¹⁴itsasoetatik igaroten diranak lez egozan;

¹⁵izan be, aren jakituria guztia euren eragiñak eta lezako orroek eta olatuen jagiteak eta itsas-gorabeerak

¹⁴ezereztu egin izan eben.

¹⁶Itsasoko olatuak ikara-larriz egiten eben durundi; Sheol'a (Lezea) eta Abaddon (Lezako aingerua) zabaldu egiten zirala zirudian.


Illobiko gezi guztiak

¹⁷egiten eutsoen lagun eta euren txistuak entzunerazoten ebezan.

Sheol'eko atek zabaldu egiten ziran sugearen azpikerien eragiñez.

¹⁸Illobiko atek gaiztakeri-seingintzan ziarduanaren ostean itxi egiten ziran, eta ate-orri betikoak sugearen espirituen ostean.

KEREXETA



OTOIZLARI

OTOIZLARI ALDIZKARIA

Belok'eko beneditarrak argiraten dabe, urtean lautan, aldizkari eleizkoi au. Azkenengo zenbakia, 104,105 ta 106 batera da. Martikoa ta ekaiñekoa orain arte etorri barik egon dira.

Zergaitik?

Frantzia'ko agintariak bidalgoko ikur barik bialtzeko debekua jarri dautsoe eta abesti larregi dakar (ori ez dabe egin bear antza aldizkariak), barri gitxiegi, urtean lautan zabaltzen ez dalako, irakurlerik erdiak gitxienez urte-saria emon bear leukeelako...

Orra or OTOIZLARI, 28 urtetan agertu dan aldizkaria, arriskuan.

Oraingoz eta baldintza orreik betetekotan lortu da argitartzea, Gotzaiñaren laguntzaz. Noiz-arte?

Aita Xabier Diharze'k, bere ondoan gaukaz.

ZER

BIZKAIERA-ADITZADALA-TA

Ona emen aztertu doguzan iru aditzaldien adizkera biak. NOR-NOK eran, ez dago ezbairik; beraz, naikoa izango dogu NOR-NORI-NOK (edo NOK-ARI-ZERBAIT) adizkerak jartea.

Bitarako erak diranai, izarra (*) ezarriko dautsegu.

Erriak *G* izkia jan egiten dau geienetan.

SUBJUNTIBOKO ORAIN-ALDIA

(areik niri zerbait eroan dagiden = dagisten: para que ellos me lo lleven)

NIRI

zuk dagidazun = dagistazun
arek dagidan* = dagistan
zuek dagidazuen = dagistazuen
areik dagiden = dagisten

ZURI

nik dagizudan = dagitzudan
arek dagizun* = dagitzun
guk dagizugun = dagitzugun
areik dagizuen = dagitzuen

nik dagiodan = dagitsadan
zuk dagiozun = dagitsazun
arek dagion = dagitsan
guk dagiogun = dagitsagun
zuek dagiozuen = dagitsazuen
areik dagioen = dagitsoen

AREI

nik dagiedan = dagitsedan
zuk dagiezun = dagitsezun
arek dagien* = dagitsen
guk dagiegun = dagitsegun
zuek dagiezuen = dagitsezuen
areik = dagieen = dagitseen

GURI

zuk dagiguzun = dagiskuzun
arek dagigun = dagiskun
zuek dagiguzuen = dagiskuzuen
arek dagiguen = dagiskuen

ZUEI

nik dagizuedan = dagitzuedan
arek dagizuen* = dagitzuen
guk dagizuegun = dagitzuegun
areik dagizueen = dagitzueen

SUBJUNTIBOKO LEEN-ALDIA

(areik niri zerbait eroan egiden = egisten: para que ellos me lo llevaran o llevasen)

NIRI

zuk zegidan = zegisten
arek egidan = egistan
zuek zegiden = zegisten
areik egiden = egisten

ZURI

nik negizun = negitzun
arek egizun = egitzun
guk gegizun = gegitzun
areik egizuen = egitzuen

ARI

nik negion = negitsan
zuk zegion = zegitsan
arek egion = egitsan
guk gegion = gegitsan
zuek zegioen = zegitsoen
areik egioen = egitsoen

AREI

nik negien = negitsen
zuk zegien = zegitsen
arek egien* = egitsen
guk gegien = gegitsen
zuek zegien = zegitsen
areik egieen = egitseen

GURI

zuk zegigun = zegiskun
arek egigun = egiskun
zuek zegiguen = zegiskuen
areik egiguen = egiskuen

ZUEI

nik negizuen = negitzuen
arek egizuen = egitzuen
guk gegizuen = gegitzuen
areik egizueen = egitzueen

AGINTE-ERA

(zuk niri zerbait eroan egidazu = egistazu: llévemelo V.)

NIRI

zuk egidazu = egistazu
arek begit = begist
zuek egidazue = egistazue
areik begide = begiste

ZURI

(nik dagizudan = dagitzudan)
arek begizu = begitzu
(guk dagizugun = dagitzugun)
areik begizue = begitzue

ARI

(nik dagiodan = dagitsadan)
zuk egiozu = egitsazu
arek begio = begitso
(guk dagiogun = dagitsagun)
zuek egiozue = egitsazue
areik begioe = begitsoe

AREI

(nik dagiedan = dagitsedan)
zuk egiezu = egitsezu
arek begie* = begitse
(guk dagiegun = dagitsegun)
zuek egiezue = egitsezue
areik begiee = begitsee

GURI

zuk egiguzu = egiskuzu
arek begigu = begisku
zuek egiguzue = egiskuzue
areik begigue = begiskue

ZUEI

(nik dagizuedan = dagitzuedan)
arek begizue = begitzue
(guk dagizuegun = dagitzuegun)
areik begizuee = bagitzuee

KEREXETA

EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA ISRAEL

ERDI BI

ONU'k bi zati egin eban Palestina: Israeldarrentzat erdia, Jordani'ko Hussein erregearen mendean; palestindarrentzat bestea.

Laister ordea, arabitarrek Israel'eri tiroka ekin outsoenean, Israel'ek artu eban Palestina'ko arabiar zati ura ere, ta andik iges egin bearrean aurkitu ziran Palestindarrak. Borrokalarienak Jordanira joan ziran.

Baiña ez luzaro'ko, 1970'ko Iraillean, «Irail Bel-tzean», borroka izugarri odoltsu baten ondorean Hussein erregeak uxatu bait ebazan andik Libano' runtz.

* * *

ISRAEL'EN ETA LIBANO'N

Baiña gaur ez gera «Palestina Askatzeko Erakundearen» gudarozteko borrokalaria auetzaz mintza tzen ari, palestindar emakume eta gizon paketsu langilleentaz baizik. Ona nola dagozen banaturik gaur palestindar paketsu auk.

400.000, beti Israel'enak izan diren lurraldeetan. Auek ez dautsoe beñere Israel'eri nekerik eman. Irabazi ere, lan-sari ederrak irabazten dabez-eta, pozik bizi dirala an dirudi.

700'en bat milla, Jordani'koa izandako Palestina'ren zatian; len Samari eta Juda esaten jaken lurraldeetan. Orain arte ez dautsee auk ere israeldarrei buri-auste aundirik emon.

600.000, Libano'n. Itxuraz beintzat, beti an bizitzeko asmotan.

* * *

ARABIIARRREN ARTEAN

3.000.000 (iru milloi!) Jordani'n. Berak dira ango biztanlerik ugarienak (% 70), jakintsuenak, lanerako yayoena, eta aberatsenak.

Beste 200'en bat milla Saudi-Arabi'n, Siri'n, Irak'en eta beste Laterri arabitar batzuetan.

Joan dan illean esan genduan lez, palestindar auk danak badabe Palestina'n bizi eta Palestina'n Laterri bat eratzeko eskubidea. Baiña...:

* * *

TOKI - ARAZOA

—Gustiak Palestina'n ezin daitezke sartu, Palestina'k guztiak mantentzeko aberastasunik ez dau-ta.a.

—Palestindarrak Palestina'n sartzeko Israeldarrak atera bearko genuke aurretik Palestina'tik.

Izan ere..., lurralde ura ez bait da israeldarrena. Len berena izana da. Baiña arazo auetan, gaur, ez lengo rrazoiak balio. Gaur-egunerako, gaurko arrazoiak balio dabe.

* * *

NAPARROA EUZKADI?

Ikasi daigun euskotarrok. Askotan entzungo zenduan: «Naparroa Euzkadi da eta Naparroa'k Euzkadi'n sartu bear dau».

Zer esan gura dabe orrekin?

Edestiaren arrazoiiez Naparroa Euzkadi dala? Ori ez dautse iñork ukatuko.

Orrek ordea ez dau gaurko balio. Gaur ez gera edestian bizi, gaurko oraingotasunean baizik.

Eta gaur Naparroa Euzkadi dala esan aal izateko, bear-bearrekoa dogu gaur Naparroa'n bizi diran gizon-emakumeek beren buruak Euzkadi'kotzat eukitzea.

Saia gaitez an ba Naparroa'ko jendearen biotzetan Euzkadi'ren maitasuna eta Euzkadi'ganako zale-tasuna sortzen. Bastela ez dogu gaur, «Naparroa Euzkadi dala» esaterik izango. «Euzkadi izan zala» esatearekin, negarrez ba'da ere konformatu bearko dogu.

* * *

LATERRI BI?

Eta Palestina'n? Zer egin an, bertan bizi israeldarrekin?

Jesus ilda 90 urte geroago Adrian I Erroma'ko Agintari nagusiak egin zuan lez, danak atzerrira indarrez erbesteratu?

Gogorregia dirudi.

Nola orduan arazo ura txukundu?

Palestindar borrokalariek esan oi dabean lez, «danak itxasora jaurti? Ez noski!».

Nere ustez, ONU'k beti eskeñi oi daun askabidea dogu arazo biurri onentzat egokiena: Palestina'n bi Laterri osotu. Bat israeldarrentzat; bestea, palestindarrentzat. Orain arte, ordea, ez auk ez aiek, ez dabe aolku edo kontseju ori ontzat artu nai izan.

* * *

ADISKIDEAK ETA ARERIOAK NASTEAN?

Gaur ordea, Marrok'eko Fez urian egindako barzarrean Laterri arabiterretako Buruzagi nagusiek, azkenean, eman dautsoe erabaki arri beren onespe-

(16'n. orrialdere)

AMOREBIETA'KO ITUNBENA

DUDAGOITIA'N

Zornotza edo Amorebieta base-
rri, auzotegi, asko dauzan udale-
rria dala, Bizkai'tarrok ondo daki-
gu.

Ni orain Euba'ko Pasiotarren
«Lauaxeta» Ikastola'n bizi naz.

Bein baten Dudagoitia izena
dauan auzotegi baterantza egin ne-
ban neure ibilaldia eta an etexe zar
batzuk egozala oartu nintzan eta
gogoz urreratu nintzan eurakana.

Euren egintza-erea, atadi zaba-
la, arri-ageak eta oneitariko baten
armarria, aizollarrak eta olakoak,
nire jakingurea itxartu ta jakiñak
ausnartu -azo eusteazan: Noizkoak
ete dira? Nortzuk bizi izan ete zi-
ran emen? Aundikiak edo eun-
tzutedun leiñargiak zirala dirudi.

BILLAKETEA

Edesti-azterketak egiteko, base-
rritarrekin berbetan asi nintzan.
Oneik esan eusten, adikor eta gi-
zabide onez, etxe aretako antxiña-
ko bat Mexiko'n Alkate edo Ko-
rrejidore izan zala eta amazortzi
urte baiño geiago atzerrian egon-
da, aberastuta, «indiano» edo
«amerikanu» biurtuta eldu zala
Dudagoitia'ra eta emen Durango'-
ko neskatilla bategaz ezkondu za-
la.

Barri oneik entzunda nire jakin-
gurea geiagotu egin zan eta itaun-
ketan ekin eta ekin egin neban.

Baiña areik Zorrontza'n bizi
zan Ibinaga'tar Maria Luisa'gana
joateko bidea emon eusten nire ja-
kingurea asetzeko.

Eldu nintzan Zorrontza'ra eta
Ibiña'gaz alkar ikusi ta berba egin
neban.

Auxe esan eustan: Korrejodo-
rreari buruz Dudagoitia'n entzun
dozuna egia da, baiña zeaztasun
eta zertzelada guztiakin jakin gura
ba'dozu, berton Zorrontza'n dau-



Ibinaga ta Belaustegigoitia'tar M.ª Luisa'ren etxea. Emen izenpetu zan Amorebieta'ko Itunbena.

kazu Etxebarria izena dauan gi-
zon bat eta berak jakinarazoko
dautzuz.

MAI TXIKIA

Onck emongo leuskidala esan
eusten, Udal-Etxean egoan len-
idazkitik argazkiz ateratako libu-
rutxu bat. Gengozan etxea berea
zala eta Amorebieta'ko itunbena
antxe izenpetu zala esan eustan.

Izenbea jartea Serrano Gudal-
buruak erabili eban maitxua be-
ikusi neban: Etxea lez txikitxua da
eta ori gogoratu eustan.

Agiri aundiak egiteko gogo
aundiaz eta ospez jokatuten oitu-
ta gagozelako, arritu egiten gaitu
Karla'tarren bigarren gudea amai-
tzea ain gauza txikian egiña iza-
teak.

KARLA'TARREN II GUDEA

Karla'tarren I gudea 1839'an
Bergarako itunbenagaz amaitu
zan eta II 1872'an orrillaren 24'an
Amorebieta'ko Itunbenaz.

Labur-labur esango dogu zelan
izan zan eta zeintzuk eskintzak.

Serrano Gudalburuagana eldu
ziran Duke Jauna ta Lopez Do-
mingez Gudalburua Guda-Aginta-
ritzako Nagusiak eta Urkizu'tar
On Fausto. Orue'tar Juan E. eta
Belaustegigoitia'tar On Gaspar.
Berbaldietan eta eztabaidetan goi-
zeko irurak arte iraun eben eta
biaraminerako itzi ebezan idaz-
kiak eta izenpetzeak.

AZKEN-BALDINTZAK

Sei erabagi artu eta emon ebe-
zan:

- Bizkaia'n guda egitera jaso zi-
ranak parkamen osoa artuko
dabe eta euren etxeetara joan
leitekez, izkilluak itzi-ta.
- Parkamen onetan sartuta da-
gozan Guda-Aldundegiko la-
gunkide guztiak eta agintariak,
kalterik artu barik atzerrira
igaro leitekez.
- Jaunerriko zergai dagokienez,
Gernika'ko Batzar Nagusiak
Lege Zarren oituraz erabagiko
dabe.
- Eskuetan izkilluak daukezan
gudariak, izkillu orreik itzi ez-
(6'n. orrialdera)

LANDAJUELA ADISKIDEARI

Jaungoikoak bertsolari - doia emon ba'leust joan jakun Landajuela adiskide onari omenezko bertsoak egingo neuskioz, baiña ori ezin egiñaz, ona emen bere oroitzak berba askatuz.

Lagun on eta zintzoa, benetan maitagarria, betiraunera aurreratu jaku, negarrik, naigaberik ez nekerik ez dagoan egizko bizilekura.

ZER aldizkari onen azken-orrionaldean idazlan labur baiña maminetsuak, ia beti euskalkien alde, adierazoz, gure euskerearen aberastasuna euskalkietan dagoala eta sasi-jakintsuak egin deben batu ori, arrapaladan sartu gura dauskuena, ondapen blastada bat izango dala, izkuntzak erritik sortu bear daualako, esan eta esan ekin eban.

Landajuela beargin tolesbako ta zintzoa zan eta egunero zortzi orduz kaletan lan egin ondoren, edatetxeetako barriketak alde batera itzi, urrutikuskiña alboratu eta atsegiña artu bearrean Euskeraza-



leak Alkartearen geletan sartuta duan bere laguntza biotz zabalez eskintzen eban ZER gure aldizkaria ondo ibilli zeitean eta bidalgoz, garaiz, izenpetuai eldu zeikioen.

Otzan, isil, zalaparta guztien arerio izan arren, zuzentasunaren

aurkako egoerak ez ebazan salatu barik izten. Batez be erantzukizunik-ezak eta griña itsuak sorturiko maltzurkeriak argitan ipinten.

Ezagutu genduan guztiok, egunero mai-ondoan jesarrita, arpidedunai biartzeko ZER'en aleak eratzen ikusten genduan. Aren isillezko ontasunak miratu ta ederresten ginduzan.

Landajuela'ren laguntza irabazi-bakoak eskertzeko Euskerazaleak San Anton'en Mezea egin eban bere gomutapenez Igan-de bateko amabietan. On Klau-dio izan zan maiburuko, baiña gure adiskide onen oroipen eder bat egin be.

Aita Jaungoikoaren betiraun-etxetik lurreko txango onetan bera lez lagun onak izateko lagundu daiskula.

LETONA'k

(5'n. orrialdetik)

kero parkatuta geratzen dira, bardin buruzagi ta guda-aging-tariak, len dauken irabazbidea kendu barik.

- Erabagi onein ondorenak nire aginbideak esaniko tokietan izkilluak izten dabezan unean asiko dira.
- Guda-Aldundegiko Jaunak eta ordezkioak berbatuta gerantzen dira euren aal-izatez erki onetako bakea urratu leikeen

matxinada ta burrukak alde batera izteko.

Amorebieta'n, 1872'ko orrillaren 24'an

FRANCISCO SERRANO'k

IDADZLEAREN OARRA:

Esan dodan idazki-liburuak amabi atzalburu dauz. ZER'en zuzendariak gura ba'leu eta Aldizkariaren irakurleak onartu ez-

kero, atsegiñaz emongo neukez euzkeraz orrialde orreitan agertzen diran jazokizunak.

LETONA'k

**IDADZKOLEAREN
ERANTZUNA:**

Gaia oso jakingarria da eta Letona J.'k ori egitea esker onaz artuko genduke. Maitxuaren, etxeen eta olakoen argazkiak be pozik argiratuko gendukez.

ZUZENDARIA'k

OLERKI - EGUNA

Ainbat urte daroaguz, aurtengoaz ogei ta iru, Olerki-Eguna ospatzen Zornotza'ko Larrea'n edo bertako Lekaide-etxean, urte guztietan bizi dan edo ilzan olerkari baten gomutaz.

Aurtengoa, Deba'ko Tene emakume jatorra, euskera irakasle azkarra, euzkel-idazle bizkorra, olerkari ta abar luze bat beren bizitza luzean izan zananen gomutaz izan zan. Irailla'n, ogei ta bat'ean, ospatu genduan.

* * *

Lenengo urte askotan Bakaldun Kristo'ren gomutaz egin bear izaten eben eta bere egunean, aldi aretan galarazota egoalako ezertariko batzarrak egi-tea «falangista» eta orretariko euzkotarron arerioak izan ezik.

Orain be egun ortan berean, Kristo'ren egunean berian, ospatzen dogu baiña, azkatasun da alaitasun obeakaz.

* * *

Beste urteetako antzara, lenen eberdateeko amai-ka ta erdietan euskerazko jaupa, meza ederra. Aita Santi beste lekaide agurgarri bi lagun ebazala, eta bai-ta Aita Jagoba (Santi)'ren txonitz bikain da guz-ti... Eta, zetan esan ez, euzko eresi txukuna mezatan geienen atsegiñaz entzuten gendubala, Orixe da izan be Larrea'ko karmeldar Lekaide-etxea; euzko aber-tzaletasunaren uzkuertzale kabia.-

* * *

Jaupa amaitu ta laster, bildu gintzazan Lekaide-etxeke areto baten, ogei ta amarrenbat olerkari, euzkal idazle ta antzerako, benetako alaitasunean alkarren adizkide onak lez bakoitxaren eretxiak entzuteko.

* * *

Beste urteetan lez, Aita Jagoba izan genduban buru baiña, beste bat geiago balitzan lez, beste oler-

kari azkar bi lagun zituala eta, berealaxe asi ziran olerki, bertso ta abar leiaketarako bidaldu ebazenak aipatzen.

Maikoak esan euskunez, ainbat lan bikain izan ziran artu ziranak eta, ez zan ain erraz izan zein obia zan aukeratutzea, baiña, batonbatzuk izan bear ziran danen artetik onenak eta, ara zeintzuk izan ziran aukeratuak, orretarako danok ikusten genduzala olerkari orrein ezkutitzak igiriaz. Orixe da gauzak ondo egiten jakitea:

Biotz-olerki edo Lirikan, lenengo saria Zubiri'tar Iñaki'ri beren «Neskato Itsuak».

Maite-eresi edo Poema'n lenego saria Beloki'tar Augusten'eri, bere «Baso-Oiartzuna».

Bertso edo itz-neurtu'zko lenengo saria, Erkiaga'tar Eusebio'ri beren «Ekintza bertsoak gaitik».

Leiaketa orretatik gaiñera, irakurria izan zan Tene emakume azkarraren euzko arloan egindako lan ugari ta bikaiñatzazko idazki luze bat, jakingarria bera.

Aurre-apraiz'tar Balendin'ek aintziñatzu Gernika'ri zuzendutako olerki mamitsu sentikor batzuk eta abar.

* * *

Dana amaitu ondoren, ea iruretan, alkar-arteko bazkaria Lekaide-etxetik urbil aurkitzen dan jate-txean. Dana ondo baiño obeto ta anaitasunik zintzoenean.

Tamalez, urtean baiño urtean gitxiago gera batzar anaikor orretan bilduten geranak geienok urte-tsuak izanak, urte guztietan bat edo bik gure artetik betirako alde egiten dauskuelako... Eta gazteak?, urtetsu diranean bear bada beste era batera oldoztuko dabe baiña, gaur-egun euzko arlo onetatik pizkabat urrunago aurkitzen diralako ez dotoz.

ALTUNA'tar Josu

ELBIRA ZIPITRIA (IRA)

Abenduaren 26'an il da Donostia'n 78 urte ebazala. Anderei-ño zumaiarra. Guda-aurrean ikastola sortu eban Donostia'ko alde zarrean. Gero erbesteratu egin eben eta Sara'n egin ebazan urte batzuk. Ikastola barria sortu eban 1943'an, ikasle bakar bategaz. Geroago ugaritu ziran ikasleak. Eziketa-era barriak asmatzen ona izan zan Elbira.

Bere naia zanez, Bermeo'ko Mañu'n illobiratua izan da, adis-kide izan eban «Euskalerrria'ren amamaren ondoan».

G. B.



Zubiri'tar Iñaki, Olerkari

Zer ete da olerkari izatea? Bertsoak osotzea soil-soil? Ori baiño geiago, nire eritxiz. Gure arimearen indar bik jokutzen dabe olerkigintzan: adimenak eta naimenak. Eta indar biok guztiz emonkorrak dira, alkar artu, eio ta sustaturik, posi-lan bikaiñak eskintzen dauskuezanak; batak gauzak ezagutu daroaz eta besteak maite izan, eta bion alkar ezagutze ta maitatzez, biok —buruak eta biotzak— barru daben alkar-experientzi sendo ta gatsuz, sekulako poesigintzan daragoioe.

Adin-biotzez orniduak gara guztiok. Baiña guztiok ez gara poeta, ez gara olerkari. Zergaitik? Zer daroagun barru ez dakigulako; eder-teknikaren zentzunik ikasi ez dogulako. Gure arimak sorturiko semeak zertaz eta zelan soñekotu ez dakigulako. Hölderlin doixtar olerkari biziak «olerkitsu bizi dala gizona», iñoan. Egia ete? Bai ta ez. Alde aundia, troka batetik besterakoa, dago gizaseme batetik bestera. Guk lurralde eder bat daukagu, mendi, ibar, itxaso... Baiña gizonon artean, onen bizkieratik arenera diferentzi izugarria dakust. Zuk be bai noski. Bizia askoz ederragoa litzateke lore artean bizirik, arantz artean baiño.

Sarri, tamalez, barru ta kanpo zer daroagun eta daukagun konturatu barik urrats dagigu bidean zear. Batzuk bizitz erdirantza itxartu oi dira: Dante, uste danez, bere bizitz-erdirantza asi zan *Jainkozko Antzerkia* idazten. Beste batzuk geroago. Ori gertatu jako emen aitatu nai dodan olerkariari be, au da, Zubiri'tar Iñaki'ri. Naiz-ta gaur Bilbo'ko «Euskeralzaleak» alkartearen buru izan, bere urteak ditula, ez da euskal idazle lez ezaguna. Txarto diñot, idatzi izan dauz artikuluak eta ba-ditu liburuak be argitara emonda, «Oroitzak» eta beste bat, polito biribilduak. Ezin esan, beraz, ain ezaguna ez dogunarren, euskal idazle ez dogunik.

Eta olerki-barrutian, ezer egin ete dauskugu? Baita. Aurten, ots, 1982'nko jorraillaren 24'an, Eibar'en «Euskerazaintza»-ren batzarrean giñala, «Bidari» izengoitiz izenpeturik, «Bidetik Amesetan» deritxon olerki-liburuaz atsegindu ginduzan. Gitxien uste dan bide-kurutzan erbiak zapart. 96 orrialde ditu liburuxka orrek, 41 olerkiz astun. Gai-mordoa darabil, atsegiñak oso. Rimaz eta neurriz, obeto ezin. Pentsamentu dotoreak eta jantzia be txairoa. Barriro diñotzut: atsegiñak!

1982'GNEKO «OLERTI EGUNA»

Dakizuenez, aspalditik ospatzen dogu, 1959'tik ain zuzen, Olerti Eguna emen Larrea'n Bizkaiko erdi-une lez dogun leku eder-eder onetan. Lenengo urteetan batez be, jente asko onerutzen zan, gerora pizkat urritu bada be. Nor-geiagoka bat iragarri izan da aurretik, olerki-batzaldi bat. Baita gure olerkariak pozik esku artu be! Beste batzaldietan baiño poesi geiago beti aurkeztu izan da gure sariketetan, iñoiz eldu dira euneraiño be artu doguzan olerkiak. Ondoren «Olerti» aldizkarian argitaratzen ziran lartok, eta akulu bizia zan euskal olerkariantzat; ez da geiegi esatea, gaur euskal olerkaritzan zerbait diranak, danak ez ba'dira be, geienak, ementxe, Olerti'n ezaldu dabezala euren lan baliotsuak.

Konkurtsu au iru zatitan banandua izan da beti: I. Lirika saila; II. Poema saila, eta III. Bertsolari saila. Iru saillok ondo beteak geratzen ziran. Baita aurten be. Adimen argiz, irudimen azkar eta biotzon-doz jori sentitzen ziranentzat, or lirika arloa; poema zaleak, barriz, urtez urte kementsu agertu izan dira, batez be legazpiarrak; eta bertsolariak emen eukien sail ederra eurentzat itxia.

Maikoak edo lanak ikusi ta aztertu dabezanak, txandaka egin izan dabe geienbat: igaz irabazi ebanak eta aurten irabazi dabenak egin bearko dabe epai-maiko datorren urtean. Luis Arostegi ta Balendin Aurre-Appraiz izan dira aurten, ni idazkari izanik. Ospakiro esaniko alkar meza nagusiaren ondoren, sariak emotea egin genduan. Iru lan ziran saritu bearrak: «Neskato itsua» lirika saillean, «Baso oiartzuna» poematan eta «Eztingintza» betso-saillean. Edegi ziran idazki-azalak, eta Zubiri'tar Iñaki genduan «Neskato itsua»-ren egillea, Beloki'tar Agustin «Baso oiartzuna»-rena eta Eusebio Erkiaga «Eztingintza»-rena. Jarraian, maikoak banazezan emondako eritxi beziak irakurri ziran. Eta olerki sarituak.

Gero, aurretik ebatzita egoanez, Deba'ko euskal idazle jator «Tene»-ri omenaldia. Ontarako folio zabal nasai bi irakurri nituan nik aren bizitza eta olerki lanak aztertu ta azaldurik. Datorren urtean be, beste ainbeste egin gurarik, izan batzuk aitatu ziran —M. Zarate, J. Eguzkitza, E. Erkiaga...), eta azkenez E. Erkiaga'rekin geratu giñan. 1983'an, beraz, Jauna lagun, E. Erkiaga jauna omenduko dogu Olerki Eguenez.

«NESKATO ITSUA»

Besteak beste, Zubiri goratzen dogun ezker, azter daigun pizkat onen olerki-lana aurtengo sariketan lenengo saria jaso ebana. 15 estrofa daukaz, 9 lauko eta 6 iruko. Bederatzi ta amar silabakoak dira bertorik geienak, naiz-ta lege ziurrik euki ez: ez jakon oni jaramonik egin. Rimaz laukoetan bigarrenak eta laugarrenak daroc azken oskidea; irukoak, ostera, lenengoak eta irugarrenak. «Olerkoia, baina ez ain ondo idatzia. 4 puntu», diño lenengo epailleak, eta bigarrenak: «Klasiko! Lauxeta ta Lizardi gogoratzen: «iturri gardena», «Laizeari itandu»... Onela gai ta azalaren bitartean: «iñontzeko alaba antzekoa», «suzmur orlegizko jorana»...

Neskato bat iruditzen dau olerkariak. Bakarrik dago neskatoa, arratsaldeko argi geldian. Ikuspegi zoragarria dau aurrez-aurre, baiña ez dau ezer ikusten; itsua da gaixoa, bere begiak ez dauke indarririk ezer ikusteko; zabalik daukaz, baiña ez dabe zabaldiko ederra ikusten; agor dagoz, idor, ildako artizarra iduri. Utsari begira neskatoa. Olerkaria urreratu jakoko, eta aren zoriaz biotz-mindurik, onela kantatzen dautso:

*«Baserriko bitxi kutuna
jaiotzetik laztan itsua,
aizeari itaundu egiozu
ikusten ez dozun mundua».*

Egia, neskatoak sarri itaundu dautso aizeari zela-koa dan mundua, koloreak, zugatzak, bere gurasoak, neba ta aitzak. Zerbait jaso dau ortik, baiña oso gixi; geiago nai leuke. Bere baserri albo abesten dautso txindor batek goiz eta arratsalde. Eta ari zuzentzen dautso samur itaun gozoa:

*«Illunabar oro dantzudan
Errotazuri'ko txindorra,
esaidazu zelangoa dan...».*

Bere egoitzatik ur-ur itxasoa dauko. Entzuten dau aren orroa ekaitz bakarretan; beste batzutan ez dau ezer entzuten. Zer jazoten ete? Olerkariak diñotsa polito ta samur:

*«Adats zuriko leoia da
aserre-bitsetan orruka;
bestetan, ostera, bildotsa
ondar bigunari musuka».*

Gorago, muiño ostean, iturri bat dago. Umetatik ara daroen ezker, ba-daki arako bidea, eta sarri zuzendu oi da bertara. Eder dau aren eresi-otsa entzutea, alboko arbel gaiñean jarrita:

*«Leiar-eresitan dantzudan
zabaldiko iturri gardena,
esaidazu zelangoa dan...».*

Eta iturriak (olerkariak) erantzun dautso, misterioz jantzitako itzez:

*«Iñontzeko alaba antzekoa,
iñar ateko apar galdua,
iraduz jabeturik doan
mendiko negar ezkutua».*

Irudimen jostariak mamindu dauan lore apaiña. Illun-litsez oretua bear dala olerkia esan daroenak, ba-dituzu. Baiña niretzat obe, barru ta azal, argi ta bizi, samur sakonak diranak. Atsegiña damosku argiak, eta illunak nekea ekarten. Bizi gaitzezan olerkiz, eta olako osotuko.

AITA ONAINDIA

50 URTE

ABADE

Bai gizon, bai; Txanton gixajoarentzat be aldu dok azken-garaia.

Nork esango! 50 urte laster apaiz egin zala Aberri maitetik ain urrin.

Bialtzen dauskan olerki ori orduantxe egiña dok bai, egia dok eta orduan guk euskeldun Karmeldarrak argitaratzen genduan Karmengo Argian urten ioan argazki ta guzti. Au dala-ta egoki egiten

iatak orain be ZER aldizkarian argitaratzea.

Nire arimak Jauna goratzen dau.
(Lukas, 1 - 46)

*Apaiz egin nintzan egunean.
Aberritik urrin.*

*Baserrian jaioa, orobat azia,
neure arbaso zarren etxetxu maitean,
antxe igaro neban gaztaro-aldia
ardi-taldeak zaintzen bake ederrean.*

*Artzaintza dan pozgarri, ezti ta gozoa!
Txabolan beti esne ta gaztaia asaro.
Egarria kentzeko an da iturritxo
ur garbi ta gardena eskeintzen maitaro.*

*Udean goizaldean pozetan larrera,
ardi zuri-tartean alai ta txistuka.
Bazkal-ondoan barriz zугatz-kerizpera
eta illunabarrean atxera oiuka.*

*Artzaintza dan pozgarri, ezti ta gozoa!
Goian eta bean bakea ta alaia.
Ara - orra jolasten arkume mordoia,
muiño - gaiñ ezarrita abesten artzaia.*

.....

*Bat-batean da aiendu pozezko kantua,
ta ixiltasuna sortu larre zabalean.
Ez da entzuten orain iñundik txistua;
itun dago artzaia... antxe bakarrean.*

*Ardi - bildots - tartean sartu da otsoa,
mordoxka iruntzirik errukirik gabe.
Zaungaka dabil antxe txakur zurzintzoa.
Artzai txikiarentzat zenbat atsekabe!*

*«Otso odoliti onek egin dau triskantza!
—diño artzain txikiak negarrez begiak.
Agur betiko agur baserri ta artzaintza.
Agur txoko maitea, solo ta mendiak.*

*Agur mundu arin ta uskeriz betea.
Agur txabola zar maitasun-kabia.
Agur maite zaitudan ene artaldea.
Gaurdanik izan nai dot gogoen artzaia.*

*Gero kendu zituan artzaintza-jantziak,
itxi txoko maitea ta sendi kutuna.
Jo zituan pozarren konbentu-atiak
aurkiturikan bertan bake ta zoruna.*

*Eta apaiz-ikasketak guztiz buka gabez
itxi bear izan zun Aberri maitia.
Euzko semearentzat zenbat atsekabe
antxe baita aurkitzen maitasun-kabia.*

*Goratu egin nozi, ene Jainko ona,
maitekiro zainduz apaizen saillean.
Artzain txikiarentzat au bai zoriona!
Poztasuna dabilkit biotz-barrenean.*

*Ondo zuzen dagidan zure artaldea
apaiz ona egizu euzkeldun semia.
Piztu bai piztu nigan, ene Jaun maitea,
anaien onerako maitasun bizia.*

Medellín (Kolombia), 1933-1-29
GOIRIA

KILI-KILI

Bertoko euskera dogun Bizkaie-
rearen alde Retolaza'tar Jose An-
tonio'k egin dauzan egundoko lan-
nak eta isuri dauzan izerdiak,
guztiok ezagutzen doguz. Bizkaie-
rea Bizkaia'n geroago ta geiago
galtzen doala, bildurrez ikusi on
doren, umeentzat KILI-KILI al-
dizkaria irasi eban eta zuzentzen
dau.

Orain lau urte Santamaria'k
ikastoletan batua irakasteko agin-
dua emon eban. Batzuk diñoenez
Azkue'k esan ei eban, Bizkaia'n
gipuzkoera osotua irakatsi bear
dala baiña ori egia ez dala ondo
agertu dau Latiegi'tar Bixente'k.
Batez be bizkaitarren arteko arro-
keria, jatortasunik-eza, menpera-
tzea dira gure euskalkia galtzera
daroana.

* * *

Orregaitik, bizkaierari eutsi ta
arnasea emoteko urten eban, ba-
tez be KILI-KILI'k eta Euskaldun
guztiak ontzat artu dagien eta
dedu-izalez begiratu dagien guztie-
tariko ikasmenak, lanak eta neke-
miñak bide dirala, KILI-KILI'k
iru argitalpen izaten dauz: Biz-
kaieraz, gipuzkoera eta batuan.

Eta orrelan be ezin lortu gauza
aundirik. Bizkaiera geroago ta
geiago baztertua, zapaldua eta on-
tzat artu bakoa.

Ene Joseba Andoni eta zugaz
elburu orren billa zabiltzekok! Al-
drak dabiltz euren ekiñean garrar-
keriz gauza guztiak austen, apurt-
zen, baztarten eta zapaltzen eta
gogamen eder eta asmo lilluraga-
rriak irri-barrez artzen dabez.

Baiña alan eta guttiz be, zuen
zeregiñetan naikotu barik jarraitu
dagizuela eskatzera beartuta ga-
goz, sikarraldi edo oikera zantar
ori igarota, erreka ura bere toki-
ra datorrenean, kalte asko etorrira
gero izango dala uste izan arren,
kondairak ezagutuko dauz zuen
zintzotasuna ta lan goragarriak.

* * *

Urtearen asieran KILI-KILI
ezin atera leikela-ta, dirurik ez
egoala-ta, bere zuzendari dan Re-
tolaza J.^o'k Eusko-Jaurkaritzari
eskatu ei eutson eta zerbait emon
be bai baiña guttiz gitxi. Zazpi-
reun milla lauerleko olako lan
aundi bat asteko be ez dira.

Batuaren aldizkari, elizti ta libu-
ruak, ostera, ba-dauke laguntza ta
danetariko sorospideaz babestuta
ei dabiltz. Orregaitik apaingarriz
ondo orniduta argitaratzen dirala
ikusten dogu.

Eta ori bizkaitarrai irri egitea
da, geienbat euren dirua erabilten
dalako, bizkaitarrak zergadun na-
gusiak diralako.

* * *

Ikusten dogu, agiria da, gure
euskerearen euskalkirik zabalena
ta onena dan bizkaiera baztertuta.
zapaldua eta ezereztu-gurean
dagoala batzun aldetik. Gure
euskal-aldizkaririk onenak diñoa-
nez, «Ama ilgo dabe, bai, baiña
seme zantar ori ez da biziko Biz-
kaia'n», ez iñon.

Idazlantxu au idaztea amaituta
gero, izparringian irakurri dot
itxaropen aundia emoten daustan
barria.

Eta auxe esan dot neure ba-
ruan: Etxenike jaunak orain (eta
orain ez ba'da iñoz be ez) gure
euskalkiaren alde egingo dauku.

Auxe diño barriak: «Urrillaren
19'an Retolaza, Jabi Uriarte ta Zi-
bikarai'k, Etxenike J.^o'ri ikustaldia
egin dautsoe eta egiri bat emon
dautsoe irakurteko. Ona emen agi-
ri onen ataltxu bat, gitxi gorabera:
Bizkai'ko Irakasle eskoletan Ikas-
leak bizkaiera lantzeko agindua
emon dagiala Eusko-Jaurlaritzak.
Eta ezetza emotekotan, ez eiguzu
arren pedagogia edo diru-atxakirik
ipiñi. Il-zorian ikusten dan gure
euskera sendotzeko egiten dogun
eskabide au ontzat artuko dozula-
koan, erantzunaren zain geratzen
gara».

LETONA'k

Bitarako berbak

(Voces anfibológicas)

Azken-aldiko batzuek, erderazko estos, esos eta aquellos esateko, oneek, orreek eta areek asi dira erabilten.

Bizkaia'n zabaldu erabilten diran erak, ostera, bakarrarenak dira: onek, orrek eta arek. «En el (Bizkaiera) —diño Azkue'k, Morfología Vasca, 442 orri.—, se usan los mismos del singular, bien que con distinta entonación. Plurales: onek, orrek» (ek izkiñari beerantz eraginda).

Baiña egoki be egoki da banantzea argitasunaren onerako: era bat, bakarra danean; eta beste era bat, bat baiño geiago diranean. Eta ori ba-dakie egiten Bizkaia'ko erri askok. Zelan egiten dabe, ba? Oneek, orreek eta areek esanda? Bai, baiña gutxiago. Begira, azken-aldiko idazleok, «Erizkizundi Irukoitza»-k agertu eban au:

Estos = onek: 70 erritan

Estos = Oneik: 28 erritan (Bilbo-inguruan, Arratia'n, Zigoitia'n, Gipuzkoa-aldean)

Estos = oneek: 3 erritan (Amoroto'n, Izpazter'en eta Gizaburuaga'n)

Esos = orrek: 69 erritan

Esos = orreik: 28 erritan (aitatu diranetan)

Esos = orreek: 5 erritan (Bolibar'en, Bedarona'n leengo iruretan)

Aquellos = arek: 49 erritan

Aquellos = areik: 28 erritan

Aquellos = areek: 2 erritan (Amoroto'n eta Bolibar'en)

Aquellos = aik: 30 erritan (Txorierri'n Arratia'n, Orozko'n, Zigoitia'n)

Beraz, oneik: 28

orreik: 28

areik: 28

oneek: 3 (iru) orreek: 5 (bost) areek: 2 (bi)

Azkue'k bere iztegian dakarrenez, oneik erri oneitan erabilten da: Arratia'n, Leintza'n (Gatzaga-Salinas de Leniz), Orozko'n eta Otxandio'n. Oneek itza ez dau aitatzen. Arek berban auxe dakar: «Arek (B), areek, areik (B-a(rratia)-ond(arroa)).

Areik erea «Otxolua»-k darabil (Bertolda, 191); mundakarra zan bera. Areek, barriz, Iturzaeta'k (Berbaldiak. 1, 89); au, otxandiarra izan zan.

Ez al-da argi geratzen? Beraz, bizkaieraren batasunerako:

este: onek

ese: orrek

aquek: arek

estos: oneik

esos: orreik

aquellos: areik

Urrengo zenbakian geiago.

KEREXETA

ILLUNABARREAN

*San Anton parroko
eliz barrenean
bakardaden naukazu
illunabarrean.*

* * *

*Ixiltasun zoruna
inguru guztian
zeruaren antzera
Jaunaren aurrean.*

* * *

*Argitxo bat agiri
an aurrekaldean
argi txiki bizia
Oteundi alboan.*

* * *

*Begiak itxi ditut
sar gomutaldian
barru dana dodala
siñismengo sutan*

* * *

*Oteundi ate ostean
txabola estuan
Jesus, nire maitea
antxe ikustean.*

* * *

*Goxotasun dardara
nire biotzean
«ortxe zagoz maitea
nire maitasunan».*

* * *

*Zoraturik al zagoz
gizonen artean?
Naiz ta gizon maltzurak
bartzertu munduan?*

* * *

*Zer ikusten dozula
gizon biotzetan
beragaz biziteko
erbeste onetan?*

* * *

*Zuri begira nago
emen Zure aurrean
Zugaz gogoratzean
zorabio bakan.*

GALLASTEGI'k

BIZKAI'KO SENDALARIENA

Izena: EUSKERAZKO SENDA-JAKINDI IZEN-SAILA (Azterbidez Saiaketa) A-B. BIZKAI'ko Sendalari «EUSKERA TALDEA».

Egilleak: Osagille ta Osakaigille Irakasle ta Baimendunak.

Zuzendaria: Alberti ta Ziluaga' tar Jon.

Laguntzailleak: Iturriaga ta Etxebarria'tar Frantzisko, Hormaza ta Bilbao'tar Jon, Ondarra ta Azurmendi'tar Bizente, Uriarte ta Rio'tar Rikardo.

Urtea: 1982.

Irarkolea: Bilbo'ko Langintza-Irarkolea (Imprenta Industrial).

* * *

JOKABIDEA

Ona emen liburu onen sarreran, egilleen jokabidea ta lanerako zioak agertzeko, jarten diran itz batzuk: «GIZASEMEEN areririk nagusiena JAKINEZA da. EUSKERA, Euskal-izkuntza, bere guztizko Antxiñatasunagaitik, ez da bakarrik Euskal-Jakintzarena, baita ere IZADI Guztia- ren JAKINTZA-ONDASUNA da. Egileek».

ARAZOA

Lenengo izki biak agertzen dauzan iztegi onek (A-B) arazo aundi bateri arpegia emon gura dautso.

Jakiña da osagilleak trebe-itza asko erabilten dabezela eta euren antzerako trebe ez diranak itz orreik ez dabezela ulertzen, ez emen, ez España'n eta ez Frantzia, ez iñon. Ulertzen ez ba'dira, zergaitik erabilten dabez? Eurak alkarragaz eta osagaigilleakaz zeatzago ulertzeko? Ba-leiteke, baiña iztegi onek berba orreik errira sartzea eta ulerterrez biurtzea nai dau, eta, nire ustez, lortzen

dau *irakurtzen dabenak euskaldun abedetuak diranean beintzat*.

Baten batek esango dau au lako zerbait: Zergaitik ez itz orreik dagozan lez gerkeraz itzi, esaterako *atrofia/atrofia*. Ori da gaurko iztegi batzun jokabidea, Gogoratu UZEI. Orrelan iztegiak egitea oso erreza litzake, baiña onuragarria ala alperrekkoa? Iztegi onetan *Atrofia/enultasun, noku-eri, ende-katze, azgaitze, azgaitz enultasun, erabilgeri enultasun, urritze enultasun*. (Zergaitik ez erdian marratxua'ko edo olako zerbait kentzen danean?).

Gerkerazko itzen eta euskerazkoen jatorria oso ondo ta jakintsu agertzen da. Izkuntza biak ondo ezagutzen dabez egilleak.

Erriak ulertzeko erak erabilte au, nire ustez, oso jokabide egokia da. Gaiñera gaztelereak eta latinetik sortutako izkuntzak itz barriak sortzeko oso erreztasun gitxi dauke, baiña gure izkuntza orretan guztiz aberatsa da, eta beste alde batetik euskereak gerkereagaz eta latereagaz bere itzetan dauan zerikusia izkuntzaren kondairan naita laburra izan da, itzen sustraiai begiratu ezker, emen begiratzen jaken lez.

Nire ustez utsak diran gauzatxu batzuk agertzen asi orduko, au esan bear dot: Oso mingarri jatela olako lan sakon eta gogotsuari utsak billatzea ta aurkitzea, baiña egilleen guraria ori dan ezker, ebagiketa mingarri au egitera bearturik nago eta ebagiketaren barria ba'dakie zendagilleak edo osagilleak. Dana dala, lana guztiz txalogarritzat daukat.

IDAZKERA

Egilleak artu daben idazkera «Derio'koa» da, eta ori ez da utsa, jakiña, ori bide bat da eta «H» batzuk be agertzen dira, oso gitxi,

izki bakartien edo bokalen erdian. Ori be jokabide bat da, «Derio'ko» idazkeran aske dagoana eta «guk» Euskerazaleak eta Euskerazaintza'k onartzen ez doguna. Euren zioak izango ebezan idazleak jokabide ori artzeko... «Gu» bide orretara ez gara sekula sartuko. Esaterako: 2 orr. aho; 9 orr. ohar-men, eta abar.

Ba-dira beste uts batzuk, irarkolakoak dirudienak. Ona emen euskaldunok nekez bideratuko dogun arazo bat! Esaterako: III orr. *gustizko/gustizko*; V orr. *sailla/zailla* (gatxa) eta *es/ez*.

Iztegiari begira, itz batzuk lendik sartuta egozanak artu-bearean barriak asmau dira, esaterako *Bizi-Alea/gelatxua*, aspaldion erabili izan dogu *gelatxua/célula*.

Itzen jatorria azaldukeran utsen bat: XI orrialdean *Epeluzeko gaisoaldia «epe»/plazo, Luzel/largo, -ko*. Sufijo de futuro, baiña emen ez da geroaldiarena, *-ko* ori *nozko* atzizkia da, esaterako, *atzoko* dantzaldia.

7 orr. *acelerador/lasterkor*, ez dirudi orrek ondo-ondo euskertua, *lasterkor* berez arin egitera josten dauana da, baiña beste bateri arin eragiten dautsona? *Laster-tzaillea? Lasterkiña? Laster-gailua? Olako zerbait... Arinkiña*.

Ez dot egin liburu osoaren azterketa zeatza oraindiño, baiña bear ba'da ta egilleak nai ba'dabe edo eskatzen ba'dabe, urrengo ZER'en zenbakietan jarraituko neuke. Ba-dakit gai batzuk Eskola-arazoak dirana, beste batzuk osteria oiñarri ziurragoa dauke, baiña irakurle zurrak bereiztuko dauzala uste dot.

Zorionak ba, eta eskerrak, SENDAKARIEN «EUSKERA-TALDEARI», eta azterketa au onartzen ba'dabe urrengora arte. Eta jarraitu dagiela izki guztiak osotu artean lanari.

OLAZAR'tar Martin'ek

Margolari gaztea

Egon zarea iñoz Orozko aranean?

Euskalerriko toki guztietatik ederrenetarikoa dala uste dot.

Ormetako egutegietan agertzen diran ikuskizunetan, orain bi edo iru urte agertu ziran, edertasunez Suiza eritxon eta ango onenetarikoai eleuskioe ondampurik Orozko'ko Ibarre'ko ikuspegi ederrak.

Ain politik izan ziralako, Barzelona'ko egutegi baten agertu ziran ikuspegi orreik.

* * *

Ori orrelan dala, izadiak (Jainkoak) ainbetse lilluraz orniduriko aran oneta margolari bat sortu da eta ez bat bakarrik, margolari lilluragarri orreik euren ertiarren trebebideaz lan ederrak egiteko gauza dira.

Intxaurreaga ta Zuloaga'tar Aitor dogu gaur aitatzen dogun margolari au: Ogei ta bat urteko mutil gaztea.

Berbaldi luzeak izan nebazan beragaz. Ona emen bein baten izan genduan alkarrizketea:



—Kaixo mutil! I emengoa az, euskotarra, euskalduna?

—Bai. Zergaitik ez.

—Euskaldun gitxi ikusten dozak i bizi azen lez bizi dozakenak. Eta zelan etorri atan zaletasun ori?

—Bizibide au artzen eragilleak bat baiño geiago izan dirala uste dot. Bat beintzat ba-dakit: Ni Ugalde'n bizi naz ama ta anai-arrebakin, baiña or beeratxuago, Ugarte'en, itxuraz jauregi dan etxe aundi eder orretan margolari bat bizi da eta onek, berau nire eragillerik aundiena izan ez arren, askotan berotuten daust gogoia margolari jarraitzeko.

* * *

Amar urte dira Aitor margolari dala.

Laudio'koak aren erti-egiteak erakutsi ta agirian ezartera deitu dautsoe.

Ikasten dabil oraindiño.

Goizetan Bilbo'ko «Antzeko Laukien» erakustetxera joaten da eta arratsaldeetan margolari lanak egiten dauz.

Berarentzat margolaritza-ertia «barru-barruan eroaten dan zerbait da. Norberagaz jaioten da».

Bere erakusketak eusko-ikusgaiak izaten dira: Baserriak, aldapak, zelaiak, basoak, mendiak...

Gure lurraldearen izatea guztiz ondo eskuratu dau. Bere miesezko laukietan ondo dirdiratzten daki ezotasun eta orlegi mardultasuna.

—Ikuskizun ederrak margotzea atsegin jat, bodegoiak eta olakoak be noizean bein egiten dodaz.

* * *

Margogintzako beste mota batzuk, burubide utsezkoa (absta-

toa) ta surrealista ez ete dagian itaundu neuntson eta auxe erantzun eustan:

—Oraindiño ez dot egiten olakorik, baiña geroago egingo dodala uste dot.

Margogintza zer dan ez daki, auxe baiño ez diño:

—Margazkia barrutik urteten dauan gauza bat da.

Baita beste era batzutako margaskiak egitea be garrantzizko izango dala beretzat uste dau:

—Ur margoak (akuarelak) eta ikatz-ziriak (Kanbontzilloak) egitea be ontzat artuko neuke. Gaiñera margazkia dan mundu aundi orretan alor edo landak gaiagotu egiten jataz.

* * *

Aitor Intxaurreaga'k Orozko'n eta Laudio'n baiño beste iñon ez dau egin erakusketarik.

Bilbo'tik eta Euzkadi'ko beste erri batzutatik be deitu dautsoe, baiña berak diñoanez, eskintza orreik ez dauke irabazpiderik. Euneke batzuk saltzen dozuz eta ba-koitxagaitik erakustetxea ordaindu egin bear dozu. Alan be, ez dakit obeto izango dan entzutea lortzeko oraingoz diru apur bat galtzea.

—Orduan, Aitor adiskide, i beti ekin eta egin!

—Bai, orixe. Au da nire asmoa. Euskalerriko ikuskizun eta ikusgarriak margotu ta margotu. Nire joerea, leia, zaletasuna, biotz-ikarazkoa edo impresionismoa dala uste dot. Margazkiak egitea nire hobby'a. Au pozbide bat da nitzat.

—Aurrera ba, mutil gazte. Jaungoikoa lagun etorriko jak ospea ta entzutea be. Euzkadi'ko margolari ospetsuen maillara elduko az.

LETONA'k

SASKI - NASKI

OLERTI-EGUNA

*Olerti eguna dogula ta,
Barriro bere alkartu gara,
Ongi etorriak LARRA'ra,
Jai edēr bat ospatutera.*

*Aita Benito ta Errobusteneri,
Omenaldia gaur eginbeartsegu,
MEZA onetan emen guk,
Euren alde erregutukodu.*

*Geure JESUS JAUN Maitia,
Zeuri zor iatzu gure bizia,
Zeuk emon zindun gugaitik,
Zeure odol eder guztia.*

*Zeure aurrean gagoz emen,
Zeuri laguntasuna eskatzen,
Mundu onetan JAUNA,
Eskara gu alkar aituten.*

*Zeuk eskatuiozu AITARI,
Bakea emon daiskula geuri,
Eta Ildako guztiari,
Zorion asko eureri.*

GERARDO BERNAOLA

SEASKAKOIA

*Lo dago aur txikia
seaskatxoan,
ama pozez zorutzen
bere alboan.*

*Lo dago aur txikitxoia
goxo-goxoro,
beragan du amatxok
maitasun oro.*

*Ointxo biak goraka
ta jolasetan,
irripartxoia muxu
ta espanetan.*

*Aingeruakin dago
pozik izketan,
ama patxoka ago
ta matralletan.*

*Lo dago aur txikia
seaskatxoan,
ama pozik abesten
bere ondoan.*

*Egik lolo txikitxu,
lolo maitia,
bestela laster dok or
toto aundia.*

*Polito-polito ba
ia estaldu,
amatxo dok emen ta
ez ai bildurtu.*

*Ez ein negarrik txiki,
lolo maitetxu,
amatxuk zainduko-ta
lolo enetxu.*

*Neure barneko puxka,
neure aingeru,
ire amatxorentzat
poz eta zeru.*

*Lo dago aur txikia
seaskatxoan,
ama pozez zorutzen
bere alboan.*

Bilbo - 1930
GOIRIA

BIZKAIERA

Mungia, 1982-12-6

«Euskerazaleak Alkarteko» jaun agurgarriok!

ZER aldizkaria artu gura dodala-ta bialtzen dautzuet idazki au. Baiña ez da arrazoi bakarra. Zuek argitaratzen dozuezan liburu eta beste aldizkari batzuen barria be artu gura neuke.

Zuek diñozuenenez, euskera egoera larrian dago eta egoera orretatik ateraten lagundu gura neuke, gauza au zuei eskatuaz: Etxean euskera ikasi-ostean, zuen laguntasunaz ikasi neban euskerea ondo erabilten eta ondo egiten.

KILI-KILI izan zan orretan nire maixua eta eskerrak emoten dautsodaz.

Gaur-egun unibersideadean euskal-Filolojia ikasten nabil eta egiten dodan euskereaz ez naz lotsatzen, ondo ezagutzen dodalako, zuei eskerrak batez be.

Askok esaten dauste bizkaierak ez dauala ezertarako balio eta batua ikasi bear dala. Nik barriz auxe erantzuten dautset: Euskeraren etorkizuna euskalkietan dagoala eta euskalkietatik asi bear dala euskerea ikasten, egiten dan euskeratik, eta apurka-apurka baturantz jo.

Baiña guzti onen gaiñetik euskerea egon daitela eta ez politikako jokera batzuk.

Ekin dagizuela ba, euskera bultzatzen eta indatzen. Bera barik Euskalerririk ez daukagu-ta.

Iñoiz nire laguntzarik bear ba'zendue, prest nago zuei laguntzeko, bai euskerazko klaseak emoten, bai zuen barriak zabaltzen, bai beste edozein lan egiten.

Beste barik, zuen barrien zain geratzen naz.

AGURTZANE MALLONA

ASTIRO

(4'n. orrialdetik)

na, eta Yasir Arafat'ek ere eman bearko dautso be-
rea, bakarrik gelditu nai ez ba'dau.

Israel ordea gogor dago. Ez du Palestina'n Late-
rri arabitar bat ikusi nai. Lañezak arturik dagoz is-
realdarrak. Palestina osoa berena dala diote, eta ez
dagoz Samari eta Juda'tik irtetzeko asmotan. Berta-
ko palestindar guztiak indarraren bidez bere men-
pean artu nai dauz Israel'ek betirako. Ez ote dau
ikusten, Laterri barruan, lau milloi biztanletik milloi
bat etsai amorratuak ba'dauz, ez daula iñoiz pakerik
izango?

EUZKADI ASKEA

Euzkadi'n ere, badirudi gure ezkertiar marxiza-
leak, Naparroa'ko jendea indarrez Euzkadi'n sar-
tzearen zale dirala.

Ez, guk ez dogu indarrez ezer egin nai; askoz gu-

txiago gure Euzkadi indarrez osatu. Laterria, gizaku-
me batzuek, yare, libre, egiten daben alkarte bat bes-
terik ez da. Baiño gizakume oiek yareki, osatu bear
dabe alkerte ori.


Bestela Laterri bat ez baiña espetxe bat izango
bait litzake. Eta guk ez dogu gure Euzkadi iñorentzat
espetxe izaterik gura.

ISRAEL?

Oartuko ote da Israel, gizartean indarra ez dala
betirakoa izaten? Ikusiko ote dau, luzarora indarke-
riak galdu egiten daula beti? Lañeza oro utzita, Fez'-
ko uri marrokiar zaarretik Laterri arabitarretako
errege eta lendakariak luza dioten eskua lenbaitlen
artzera, era adiskidetsuan artzera, makurtuko ote
da?

LATIEGI'tar Bixente

28.^a ERANTZUNA




Corri

EZKERRETIK ESKUIRA

1. Mirador, observatorio.—Lengua vasca.—En cuanto a mi.
3. Aspirante.—Acertar, adivinar.
4. Tierno, perjuicio.
5. A juicio de.—Nube (del ojo).
7. Perder.
8. Totalmente.—Mella, ondulación.
10. Inflar, aventar.—Aparecer.
11. Historieta.
12. Designar, señalar.—Tambor.
14. Irracional.—Tataranieto.
16. Ligero, veloz.—Postura.—Adornar.—Leche, sabia.
18. Nauseabundo.—Ultimar.—Cuitado.
20. Lo mejor posible.—Epoca de hambre.
22. Disgusto, pena.—Reloj.—Testamento.
24. Cuatro.—Tres.
25. Charco, manantial.—Bastante.—Pena, tormento.

29.^a



Corri

GOITIK BERA

1. Tumulto, disputa.—Recurrir o llegar a él.
3. Hace ya tiempo.—Recipiente.
4. Facultad de manifestarse.
5. Rayo, relámpago.—Ortiga.
7. Al parecer.
8. Hervir.—Aprovechar, beneficiar.
9. Hoy.
10. Centenario.
11. Azote, castigo.—Sombra, cereza.—Una vez.
12. Vino.
13. Lugar de silencio.—Norma, tipo, modelo.
14. Hasta (de lugar).
15. Nocturno.—Compasión.—Mulo.
16. Registro, tacha.
17. Cual, quien.
18. Tenazas de palo, acial.—Jefe, amo, mayor.
19. Señal.
21. Tibieza.—Gancho, percha.
22. Sur, mediodía.
23. Solterona.—Ultimo.
25. Enarenar.—Veterinario.

EUSKERAZALEAK

Sua iziotu dagigun, lenengo abararak bear doguz. Abarrez mokorra ez ete dogun egingo, bildurrak nau bildurpean kezkek kuin-kuin egiñik.

Idazki zar eta orangoetatik (guztiak dira aldi onetakoak) belarriz eta begiz jasoak, zenbat abar ta erdi.

* * *

Su aundia ta txingar bizizkoa egiteko, bizkor ikusiko doguz.

Txindorra txondorkeriz egiteko be, alako gizontxuak bear doguz, nai ta ez.

«Gurelesa'koen greba medio Gipuzkoa desabasteziturik dugu».

«Esnearen deribatuek: Nata, mantekila, yogur eta besterik».

«Kamionetara kargatzea, inpeditu zuten jornalereuek».

«Libertate sindikal orokorra, kolektiboki tratatzen ari gira».

«Patrimonium soziala exigitzen dugu, langillegoaren erregela estatutoa ere bai».

«Maiatzaren lehengoan manifestapenera sindikalki manifestatzera hator!»

«Solidaritate internazionalaren ispiritu zaharra konkistatzea. Politik espresioea».

«Demokrazia reibindikatu, legalizatu eta injustiziak deuseztu».

«Krisis ekonomikoa eta korrupzioea diktaduraren subsistentziek duguz».

«Libertatearen ejertzizio plenoa exitzen dugu urgentziz eta firmezaz».

«Bakarki erresistitu zun estruktura, orain ere firme».

«Populuak atzo junta egin zun, biar asanblada plenoa eginen du, etzi manifestapena eta urrenean asanbladako bulegoan grefierrak eskaturik, greba izango».

«Bost monitore eta asesora eta koordinatzerako komitea».

* * *

Orri au irakurten duenen batek, emengoak ez diran itzak ugari ta geiegi dirala bere kautan esango ba'leu, ez, ez eta ezetz esango neuskio.


Israel'goak oraindiño ez doguz. Laster baten asiko dira euskal-usaiñez goitiztean euskaldunak dirala esanez.

LANDAJUELA'tar A'k (+)

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Couñe en nosotros

Zenue nortea gurean



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**